

EAEko inflazioa % 5 izan zen iaz abenduko prezioak % 0,2 jaitsita

Nefarroan % 6,2ra iritsi zen eta Espainiako Gobernuaren % 5,5eko aurrikuspina bete egin zen

Inflazioa % 5ean geratu zen iazko urte bukaeran EAEn, abenduko Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) % 0,2 jaitsi eta gero. Nafarroan, aldiz, inflazioa % 6,2 izan zen iaz, nahiz eta abenduan KPI % 0,1 jaitsi. Aipatu beharra dago Gobernu espainiarraren aurrikuspina (% 5,5eko inflazioa) bete egin direla, abenduko % 0,1eko igoeraren ondoren.


DONOSTIA

Prezioak abenduan % 0,2 jaitsi eta gero, Euskal Autonomi Elkarteak 1991ko inflazio tasa % 5ean kokatu zen. Espainiako inflazioa EAEkoa baino 0,5 puntu altuagoa izan zen, % 5,5, abenduko prezioak % 0,1 igo ziren eta. Nafarroaren kasuan, berriz, % 6,2ko inflazioa Estatuko handienetakoa izan zen, Kataluniakoaren ostean (% 6,8).

Ondasun desberdinei begira, elikagaien prezioak jaitsi egin ziren abenduan EAEn (-% 0,7); jantziak % 0,2 garestitu ziren; etxebizitzako prezioek ere gora egin zuten (% 0,3); garraioak merketu egin ziren (-% 0,6); kultura alorreko prezioak % 0,2 igo ziren eta, azkenik, medizina % 0,1 garestitu zen. Turismo, ostalaritza eta tresneria ondasunetan ez zen prezio aldaketarik izan.

Espainiako Gobernuak ordezkariek jakin erazi zituzten atzo datu hauek eta, azpimarratu zuten, elikagai eta garraioaren salneurrien bilakaera positiboak gainontzeko ondasunen prezio garestitzea konpentsatu zuten, KPI beherakoa lortuz.

ETXEBIZITZA Antzeko **ETA GARRAIOA,** zerbait gertatu zen Estatu espainiarrean, non elikagai eta garraio alorren prezioen beherak-



Garraioaren prezioak merketu egin ziren abenduan EAEn.

JOSE SIMAL

dak nabarmenagoak izan ziren, gainontzeko ondasunen igoerak ere handiagoak izan ziren bitartean, batez ere etxebizitza, turismo eta ostalaritza alorretan.

Ondasun guztien prezioen bilakaera, iazko urtean zehar, honako hau izan zen: elikagaiak % 2,4 igo ziren; jantziak, % 3,9; etxebizitza, %

7; tresneria, % 4,2; medizina, % 10,6; garraioa, % 6,2; kulturam % 7 eta turismo zein ostalaritza, % 6,4.

Ondasun hauek izan duten prezio bilakaera kontutan hartuta, EAEko inflazioaren % 28 etxebizitzari dago (22 Espainian); garraioak inflazioaren % 18 suposatzen du (% 16 Estatuan); elikagaiari % 14 egotzi

✓ **Espainiako inflazioa** Euskal Autonomi Elkarteak baino 0,5 puntu handiagoa izan zen 1991. urtean.

Elikagai eta garraioaren prezioen jaitsierak gainontzeko ondasunen salneurriak garestitzea konpentsatu zuen.

dakioke (Espainian % 8) eta, besteean % 12 EAEn eta % 14 Espainian.

ESPAINIAKO GOBERNUA POZIK Espainiako inflazioa puntu batez jaitsi zen aurreko urtekoaren aldean eta % 5,5ean kokatu zen iazko ekitaldiaren bukaeran. Honekin Gobernuak egindako aurrikuspina bete egin ziren, hasieran kontrarik espero zitekeen arren.

Espainiako Gobernuak bere poza agertu zuen urte hasieran egindako prebisio hauek bete egin zirelako eta abenduko prezio igoera (% 0,1) 1988ko azarotik izan den txikiena izan zelako.

Hala ere, Madrileko Gobernuak oharberazi zuenez, «1992. urtean inflazioari eusteko joera hau mantentzea, aurtengo negoziazio kolektiboan erabakioaren soldata igoeraren moderazioaren menpe dago».

Estatuko elkarte autonomorik inflazionistenak katalunia (% 6,8), Nafarroa (% 6,2), Aragon (% 6,1), Asturias (% 6) eta Murcia (% 5,8) izan ziren. Balears (% 4,1), Canarias (% 4,6), Andaluzia (% 4,8), Madril (% 5) eta EAE, berriz, inflazio tasarik txikiena izan zuten iragan urtean.

EAJ: «Madrilek ez luke ezer bere kontura erabaki behar»

BILBO

EAJ alderdiaren Bizkai Buru Bartzarrak (BBB) agiri baten bitartez azaldu zuenez, «Espainiako INI, Industria Ministeritzak eta azken finean Madrileko Gobernuak ez luke bere kontura erabakiak hartzearen hanka sartzerik egin behar». BBBren iritziz «gizarteko agenteen eta euskal instituzioak» hartu behar dira kontutan edozein industri birmoldapen aurrera eramateko orduan.

BBBk agiri adierazten duenez, azken egunotan prentsan agertu diren AHVren deusezta-

penari buruzko berriak «nahita egindako filtrazioak» dira.

«Edozein industri berrantolaketa proiektu birplanteiatzeko» eskatzen dio agiriari BBBk Madrileko Gobernuari. Era berean, «arrazoizkoa den bezala berrindustrializazio proiektuarekin batera eta herri honetako gizarte indarrekin ados jarritakoa» izan beharko lukeela uste du EAJk.

Azkenik, Madrileko Industria Ministeritzak «bere arduraren jabe egin eta eragindako aldean arteko elkar ulertzea ezinezkoa egingo lukeen pausurik ez duela emango» espero du BBBk.

1991ko Espainiako KPIak harridura eta mesfidantza sortu ditu

BILBO

ELA sindikatuaren iritziz, 1991ko % 5,5eko prezioen igoera, Madrileko Gobernuak zuzentzen duen politika ekonomikoaren datu positibo «bakarra» da, inflazioa % 1 jaitsi erazi duelako.

Gainera, politika berbera «Euskadiren hazkunde ekonomikoaren murrizketaren erruduna» da sindikatuko iturrien arabera.

Iazko abuztuan INEMen bulegoetan 150.500 langabe egotea eta abenduan 154.600 izatea politika oker horren ondorioa da, ELArentzat.

Politika hau «azken bi urtetan jasaten ari garen industri atzerakadaren eta enpleguaren hazkundera gutxitzearen arduraduna» da sindikatuko iturriek adierazi dutenez.

«MAILUKA LORTUTAKO EMAITZA CCOO sindikatuko idazkari nagusia den Antonio Gutierrezen

esanetan, «Gobernuak abenduko KPI horrelakoa izatea mailuka lortu du». Dena den, % 5,5eko inflazioa «porrota» dela gaineratu du CCOOeko kideak.

Espainiako patronala den CEOEren iritziz, 1991 urtea itxi duen inflazioak prezioak mantentzera jotzen badu ere «ez gara engainuan erori behar, azpiko inflazioa % 6,5eko bait da, azken hilabeteetan izan den altuena». Era berean, enpresariak «zuzen eta eskuragarritzat» jotzen dute 1992erako Madrileko Gobernuak egin duen % 5eko inflazioaren aurrikuspina.

UGT sindikatutik adierazi dutenez, inflazioa gutxitzea positiboa izan da eta iragan urtea KPI nahiko baxuarekin amaitzek «langabezia eta ekonomiaren gainbeherari aurre egiteko baliagarria litzatekeen jarrera berria posible egin beharko luke».

UGT eta CCOOren ustez «bateragarriak» dira sindikatuen soldata politika eta prezioak mantentzearena. Bi sindikatuek azpimarratzen dutenez, «hitzarmenetan negoziatutako eros ahalmenaren hobekuntzek ez dute zerikusirik inflazioaren garpenean».

Frantziako inflazioa % 3,1ekoa izan zen

PARISE

Frantziako prezioak % 3,1 igo ziren Frantzian 1991n zehar, bertako Estatistika eta Ekonomi Ikasketak Erakundeak atzo jakin erazi zuenez. Abenduan KPI % 0,1 bakarrik igo zen Estatu frantziarrean, espainiarrean bezalaxe. Abenduko igoera iazko azken hiru hilabeteetan izandako txikiena izan zen, urriaren prezioak % 0,4 eta azaroan % 0,3 garestitu bait ziren estatu frantziarrean.

Hemendik aurrera, KPI bikoitza izango da Frantzian, bietariko batean tabakoaren prezio igoerak sartuko ez direlarik. Neurri hau KPI hainbeste igo ez dadin hartu dute agintari frantziarrek, tabakoa % 10 garestitu egingo bait da bertan datorren apirilean.

PSE-PSOE: «Industri politikan mesfidantza izatea logikoa da»

BILBO

Bizkaiko PSE-PSOEko Batzorde exekutiboko iturrien arabera, «logikoa da sindikatuek mesfidantzaz ikustea pasa den 9an Gasteizko Legebiltzarrean onartu ziren Industri Politikarako proposamenak». Dena den, sindikatuen mesfidantza «hitzeko erasoekin» ez dela konpontzen gaineratu dute.

Batzorde honek Euskal Autonomi Elkarte (EAE) industri egoera aztertzen duen bere azken bileran, Gasteizko Legebiltzarreko eztabaidan onartutako proposamenez gain, Zentzu honetan sozialistek adierazi dutenez, «proposamenez ez bazuten Legebiltzarreko alderdi politiko

guztien oniritzia jaso ere, guztiz beharrezkoa da EAEko industri etorkizunaz adostasunera heltzea».

Aipaturiko jarrera hau Madrileko Gobernu, Gasteizko, Diputazio eta Udaletara hedatu beharko litzateke PSE-PSOEren iritziz. «Erakunde hauek ulertu behar dute helburu berberen aurrean ez dutela balio ekintza isolatuak ez eta kontrajarriak ere, iraganean ikusi dugun moduan».

Era berean, «sindikatu, enpresari eta instituzioen arteko adostasunak bakarrik egin dezake bideragari Industri Politika bat» adierazi dute PSE-PSOEko Batzorde Exekutibotik. Gainera, edozein akordio «guztion ardura» eskatzen duela azpimarratu dute sozialistek.